

“BI ASTE EDO BI URTE EGON ZAITEZKE LIBURU BAT IDAZTEN”

Goiatz Labandibar, 39 urtetako oiartzuarra da. Kazetaritza ikasi zuen eta orain idazle amorratua da. Betidanik gustatu zaio idaztea eta txikitan hainbat idazketa-lehiaketatan parte hartu zuen. Gaur egun, hitzaldien bitartez idazketa munduan sartu nahi dutenei laguntzeko prest dago bere esperientzia partekatuz.



El Correotik ateratako argazkia

Nahiz eta betidanik idatzi eta lehiaketetan parte hartu, bere lehen liburua 25 urte zituela argitaratu zuen Goiatzek.

Unibertsitatean zegoela eta, beste lehiaketa batean parte hartu zuen eta saria liburu bat argitaratzeko beka jasotzea izan zen.

25

Urterekin argitaratu zuen lehen liburua

7

Liburu idatzi ditu

Horrela hasi zen bere ibilbidea idazle gisa. Inoiz ez du literatura tailerretan parterik hartu, nahiz eta gaur egun horrelako hainbatetan parte hartzeko aukera dagoen. Bakarrik ikasi zuen idazten. Idazleek normalean ez dutela formaziorik egiten aipatzen du, asko irakurri baizik. Argitaratutako lehen liburuak “Bekatua” izenburua du eta ez du oso oroitzapen onik liburu honen argitarapenarekin Goiatzek. Idaztea, positiboa den zerbait izan da berarentzat beti baina lehen liburuaren argitalpenak hainbat oztopo ekarri zizkion, bere ustetan gutxienez.

Argitaletxeari liburu bat gustatzen ez bazaio, beka beste norbaiti eskain diezaioke. Beraz, beldur zen, bere idazteko modua zuzena irudituko ote zitzaien.

***<<Orain izenburua
aldatzeko eskatzen badidate
ez da hainbesteko trauma>>***

Istorio bat idaztea ez dela zaila dio. Sormen pixka bat behar da, besterik ez. Beti bakarrik idazten du, beste pertsonekin koordinatzea liburu bat ondo idazteko oso

zaila iruditzen zaiolako. Hasieran, ez zuen ohikoa duen moduan idazten, beldurrarengatik nagusiki. Denborarekin ikasi du, garrantzitsua dela norberak benetan sentitzen duena modu horretan idaztea eta hori jarraitzea. Denbora bere sendagaia izan da, honekin ikasi baitu akatsak gerta daitezkeela eta egindako lanak beti balioko diola. “*Guztiei ezin zaie gustatu eta hori errealitate bat da*”. Idazle bezala hau onartzea, eboluzionatzeko oso garrantzitsua dela dio; aldaketaren bat egiteko aukera beti egongo dela barneratzea. Beretzat, idazten hasteko bi gomendio garrantzitsuenak asko irakurtzea eta sentitzen duzun hori liburuan uztartzea da.

Liburuak idazteko modua

Goiatz Labandibarrek, idazteko prozesua oso ezohikoa dela uste du. Ez du konstantziarekin idazten, nahiz eta buruan beti idatzi nahi duen hori izan. Ez dauka momentu zehatz bat egunean zehar idazteko eta mantso nahiz lasaitasunarekin idaztea berarentzat oso garrantzitsua dela azpimarratzen du. Bere idazteko modua asko aldatzen joan da, bera aldatzen joan den bezala. Liburu mota ezberdin asko ditu, nobelatatik hasi eta haur liburuak barne.

Ipuinen ideia nagusiak askotan bizitako zerbaiten ondorioz bururatzen zaizkio, nahiz eta askotan gertatutako horrek zuzeneko esanahirik ez izan. Ingurunean dugun zerbaitetan oinarritu gaitezke askotan, konturatu gabe. Berak, adibidez, nahiz eta inoiz ez duen autobiografiarik idatzi, bere liburuetako pertsonaiak berarekin zerikusia izaten dute beti. Liburu batean, esaterako, bere kuadrila osoa deskribatu zuen. Autoezagutza oso garrantzitsua dela idatzi ahal izateko ondorioztatu dezakegu Goiatzen hitzetan. Berak hasieran ez zuen ideia handirik, zentzu askorik gabe idazten zuen. Bere lehen liburuak horrela argitaratu zituen, zentzu askorik gabe. Gaur egun, ideia ezberdinak biltzen ditu liburu bat idazteko eta gehienetan hauek berarekin zerikusi handia dute. Hasieran idazten zuenak patroï nabarmen bat zuten, oraingoek ez hainbeste. Garrantzia du berarentzat ez dagoela denbora jakin bat liburu bat argitaratzeko, egoeraren nahiz idazlearen menpekoea dela.

Fotogramak

Goiatzek 2016an argitaratutako liburua da. Idatzi duen liburuetatik berarekin zerikusi txikiena duen liburua da, berak esaten duenaren arabera, nahiz eta berak duen zaletasun baten ondorioz sortu. Argazkilaritza zale amorratua da Goiatz, betidanik hainbat esposizio ikustera gerturatu da, bertako argazkiez gozatzeko. Liburu hau, hainbat argazkilari ospetsuek ateratako irudiak baliatuz sortu zuen Goiatzek. Liburu hau, 11 ipuin laburrek osatzen dute eta kasu guztietan argazki batean oinarrituta daude. Lehen aipatutako erakusketetan ezagutu zituen argazki gehienak, beste batzuk bilatu behar izan zituen liburu hau sortzeko. Bertan aipatzen diren gertakizunak ez dira errealak, nahiz eta pertsona batzuk bizitza errealean existitzen diren. Liburu honetatik gogokoen dituen istorioak lehenengoa eta zazpigarrena dira. Lehenengoan, argazkia asko gustatzen zaiolako eta, zazpigarrena, ezberdina delako.

Liburu honekin baiezza dezakegu Goiatzek lehen kontatutakoa, nahiz eta liburu honek berarekiko zuzeneko harremanik ez izan, berak duen zaletasun bati esker sortu zen. Kasu honetan, zaletasunen garrantzia ikus dezakegu.